



Bizkaiko Mendizale Federazioa
Federación Vizcaína de Montaña

BIZKAIKO MENDI FEDERAZIOKO ZUZENDARI BATZORDEAREN AKTA

2025eko martxoak 04 19:00etan

Partaideak: Pedro Aizarna, Alfonso Requero, Aitziber Uriarte, Alberto Cardoso, Sole Santisteban, Sergio Lopez, Leire Zaballa, Gabi Regil, Aitor Arnedo, Garbiñe Okerantza.

Oraingo batzordea lanean hasi da eta harremanetan dago aurreko batzordearekin, funtzionamendu orokorra eta egiteko dauden gaiak berrikusteko. Egungo Zuzendaritza Batzordeak eskerrak eman nahi dizkio kargua uzten duten batzordekideei, emandako harreragatik. Egiteke dauden lanetako batzuk, Laneko Prebentzio Plana (LAP) eta Berdintasun Plana dira non dagoeneko diagnostikoa eskuragarri dago eta maiatza-ekainerako Eusko Jaurlaritzak onartutako ekintza-plana izatea aurreikusten da.

Ohiko batzarra maiatzaren 10ean egitea proposatzen da, egungo batzarra aurkezteko, 2024ko kontabilitate-kudeaketa berrikusteko eta 2025eko aurrekontua onartzeko helburuarekin.

Batzarra bat dator Belaguako eta Gorbeiaiko Aterpeetan Euskal Herriko Mendi Biltzarraren omenezko plaka txiki bat jartzearekin.

Hurrengo jardueren artean, hauek nabarmentzen dira:

Mendiko SKIa, martxoaren 15ean, Andrés de Regil zeharkaldiaren 56. edizioa. Kopako azken proba da, baita ere, mendiko eskiko Bizkaiko jarduera bakarra. Mendiko SKIari buruzko promozio gehiago egitea proposatzen da, kirol olinpikoa izango delako eta oso hedapen txikia duelako.

Euskal Nafar Ligaren laugarren edizioa martxoaren 23an hasiko da eta 2 ekitaldi izango ditu Bizkaian, Gorkizen eta Portugaleten.

Segurtasun hitzaldiak Federazioan egiten dira, baina klubetan ere egitea proposatzen da, hedapen handiagoa eman eta publiko gehiagorengana iritsi ahal izateko. Bestalde, segurtasun-materialaren inbentarioa egitea komeni dela uste da, ibilaldi desberdinetan utzi ahal izateko.

Sinatua,

AITZIBER URIARTE ASTOBIZA

FEDERAZIOAREN IDAZKARIA